

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

387/2026 Foru Agindua, uztailaren 28koa. Maite Alberdi Goenaga Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostutik kentzea, zeina bitarteko izendapen bidez betetzen ari baitzen, berak hala eskatuta

Martxoaren 27ko 186/2026 Foru Aginduaren bidez, Maite Alberdi Goenagaren bitarteko izendapena egin zen, Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

Uztailaren 16ko idazkiaren bidez, aipatutako funtzionarioak udalari jakinarazi zion 2026ko uztailaren 31tik aurrerako ondorioekin bere borondatez kargua uzteko asmoa zuela, eta Alkatetzak sail honi jakinarazi zion.

Estatuturako gaikuntza duten toki administrazioari funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluak aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estatuturako gaikuntza duten toki administrazioari funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betetzeko eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maite Alberdi Goenaga Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, 2026ko uztailaren 31tik aurrerako ondorioekin; hain zuzen ere, martxoaren 27ko 186/2026 Foru Aginduari jarraituz bitarteko izendapen bidez betetzen zuen lanpostutik.

Bigarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorioetarako jakinaraztea Burgeluko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Oreekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA